



Udal Informazio Aldizkaria

## ARREKO ZENTRO ZIBIKOA

2018ko Martxoan  
[46. zenbakia]

Otsailaren 14an egindako osoko bilkuran 2018ko aurrekontuak onartu ziren, Alkateak zuzentzen duen AIVE taldearen bozkei eta AIE taldeko Lourdes Ruiz zinegotziaren bozkari esker. Hori dela eta, martxan jarriko da Arreko Kontzejuak bultzatutako proiektua, herrian egun dagoen **zentro zibikoa zaharberritu eta handitzeko**.

Ezkabarteko Udalak 80.000 €-ko diru-laguntza emanen dio Arreko Kontzejuari helburu hori bete dezan.





Arreko hiri zentroa, gaur egun.

betetzen ez dituenez, Arreko Kontzejua-  
ren areto batean. Hortaz, denok goza-  
tuko dugu eraikin eraberrituaz. Gainera,  
espazioa zabaltzeak beste mota bateko  
jarduerak egitea ahalbidetuko du.

Zaharbertzeari dagokionez, gaur egun-  
go eraikinak taberna bat dauka beheko  
solairuan, eta lehenengo solairuan era-  
bilera anitzerako bi areto. Proposatutako  
aldaketen arabera, eraikinaren barne an-  
tolaketa guztia eraitsi egingen da. Eraikina  
termikoki isolatuko da eta horrek iragaz-  
gaitasuna eta babesa emanen dio fatxa-  
dari. Kanpoko arotzeria kendu egingen da  
eta aluminiozko beste bat jarriko da.

Bigarren aldaketa nagusia eraikina ipa-  
rraldetik handitzean datza. Bigarren erai-  
kin horrek bi solairu izanen ditu (behekoa  
eta lehenengoa) eta solairu bakoitzak  
86 m<sup>2</sup>; hortaz, osotara 171,00 m<sup>2</sup> berri izan-  
nen ditu Eraikitako Azalera Osoak. Eskai-  
lera bat egingen da bi solairuak batzeko.  
Kanpoaldean hutsune bat utziko da etor-  
kizuenean igogailu bat ipintzeko. Beraz,  
emaitza denok erabiltzeko eta gozatzeko  
zentro zibiko bat izanen da. ■

Udalak erabaki hori hartu du proiektua  
beharrezkoa delako, eraikinaren egoera  
dela eta. Instalazioak guztiz zaharkiturik  
daude, eta espazioa ere txiki geratu da.  
Ezkaibarteko auzokide guztiei on egingen  
dien inbertsio bat da. Izan ere, Udalak an-  
tolatzen dituen tallerrak (zurgintza, kos-  
metika, eskulanak, etab.), Eguberritako  
haurrentzako ekintzak, hitzaldiak, bilerak  
etab. eraikin honetan egiten baitira edo,  
bestela, eraikinak beharrezko baldintzak




*Eguberriak, inauteriak, hotza, euria eta euria, iluntasuna egunez egun laburtzen duen ilunabarra... udaberria heltzeko itxaropenarekin bizi dugu negua.*

*Iritsiko da, eta harekin batera eguraldi ona, loratutako zuhaitzak, Ezkaibarteko landak kolorez janzten dituen koltza, eta baita pertsonoi bizitza ematen diguten argia eta usaiak ere. Erlojuaren orratzen gisa pasatzen dira urtaroak, denbora igarotzen da eta berriz ere hasteko aukera izaten dugu.*

*Egunen joanak elkartu egiten gaitu eta elkarlanean aritzen gara gure herrietan errotutako deialdiak, jaiegunak, ekimenak eta festak mantendu eta ez galtzeko.*

*Atzean geratu dira, esaterako, Eguberriak, eta harekin batera Olentzero eta Errege Magoak. Zeinen polita izan zen! Zer nolako antolakuntza! Zeinen eder geunden denok! Hura lana egin zena! Horrelako ekimenak auzolanari esker dira posible.*

*Eskertu beharra daukagu batzuetan gutxi batzuek, eta, besteetan, gutako zenbaitek inbertitutako denbora, jarduna eta ilusioa, lan handia egiten baitute besteok gozatu dezagun. Orri hauetan, haien dedikazioa eta esfortzua letra larriz eskertu nahi dugu. Ez da beharrezkoa izenak aipatzea, bakoitzak jaso ditzala merezi dituen hitzak. ESKERRIK ASKO!*



## FESTA PATRONALAK ETA EKIMENAK


Arreko Festak..... maiatzaren 25etik 28ra	Eusako Festak..... abuztuaren 25ean eta 26an
Zildotzeko Festak..... kainaren 16an eta 17an	VII. Dorreari itzulua Crossa ..... irailaren 9an
Haraneko Festak (Eusa) .. ekainaren 23an eta 24an	Orrioko Festak ..... irailaren 29an eta 30ean
Orikaingo Festak..... uztailaren 25ean eta uztailaren 27tik 29ra	Ezkaibako Festak ..... urriaren 12an
Azoz/Azotzeko Festak..... abuztuaren 10etik 12ra	Makirriaingo Festak ..... azaroaren 10ean
Soraurengo Festak..... abuztuaren 31tik irailaren 3ra	Garrueseko Festak..... abenduaren 8an

# 2018ko Aurrekontuak

Hona hemen Udaleko kontuak kapituluka. Grafikoetan jarri dugu, argiago azaltzen baita kapitulu bakoitzari dagokion ehunekoa. Horrez gain, jarraian, herritarren intereserako agerikoagoak diren gastuak azpimarratu dira inbertsioei, laguntzei eta diru-laguntzei buruzko idazkian.

## GASTUAK-KAPITULUAK

1.294.800,00 €




### Gastuak-kapitulua:

1. Langileentzako gastua.....	417.900,00	(32%)
2. Ondasun eta zerbitzuetarako gastuak.....	415.500,00	(32%)
3. Finantza-gastuak .....	7.250,00	(1%)
4. Ohiko transferentziak.....	225.150,00	(17%)
6. Benetako inbertsioak .....	76.500,00	(6%)
7. Kapital-transferentziak .....	80.000,00	(6%)
9. Finantza-pasiboak .....	72.500,00	(6%)

## DIRU SARRERAK-KAPITULUAK

1.294.800,00 €



### Diru Sarrerak-Kapitulua:

1. Zuzeneko zergak.....	681.000,00	(53%)
2. Zeharkako zergak .....	50.000,00	(4%)
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak.....	96.255,00	(7%)
4. Ohiko transferentziak.....	348.600,00	(27%)
5. Ondarearen diru-sarrerak eta ustiapena.....	1.600,00	(0%)
7. Kapital-transferentziak .....	47.345,00	(4%)
9. Finantza-pasiboak .....	70.000,00	(5%)

## KONTZEJUETAKO INBERTSIOAK: LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

**laz Ezkabarteko Udalak 50.000 euro bideratu zituen Haraneko zenbait herritan inbertsioak egiteko.** Kontzejuak aurrez eskaria egin zuten Udalak diruz-lagundutako obra guzti horiek egiteko. Honako hauek dira:

**Eusan** eta **Makirriainen** bi bide konpondu eta atondu dira. Aurreko legealdian, **Azoz/Azotzen** espazio berri bat sortu zen, plaza bat. 2017an atontzeaz amaitu, eremua hesitu eta haur eta gazteentzako jolastoki bat jarri da. **Arrentzako** diru-laguntza herriko lorategiak atontzeko bideratu zen. **Orikainen** plazako zoladuraren leunketa Udalak ordaindu du eta **Orrion** kale baten zoladura amaitu. 2018an, oraingoz, Udalak **Sorauren** plaza berri bat sortu eta txiki-entzako jolastoki bat jartzea aurreikusten du, horretarako 23.000 euro erabilita.

Inbertsioei dagokienez, azpimarratu beharra dago Udal hau aspalditik ari dela esfortzu handia egiten Eusako ur-hornikuntzarako lanak amaitzeko. Alabaina, 2018rako onartutako aurrekontuetan aurreikusita zegoen partidan atzerapen bat egin behar izan da.

Programatutako aurrekontuetan, badira zenbait partida gure Haraneko herritarrek eta elkarteak diruz laguntzeko bideratzen direnak.

**"Ezkabarteko Obra Soziala"** partidaren barruan sartzen dira jantokirako, eskolako materialerako eta txangoetarako diru-laguntzak. Horrez gain, partida honen barruan daude ere salbuespeneko eta beharrezko handiko beste edozein gastu, betiere egoera ekonomiko zehatz bat dela



▲ Azotzeko plaza.



▲ Zoladura berria Orikaingo plazan.

eta ezin izan badira ordaindu eta Oinarrizko Zerbitzu Sozialetan horien aldeko txostena egin bada.

**"Kirola eta Kultura"** alorreko laguntzetan, Udalak honako diru-laguntza hauek eskaintzen ditu:

- Musika ikasteko, Haranean erroldatutako pertsonentzat.
- Euskera ikasteko, Haranean erroldatutako pertsonentzat.
- Mintzakide Elkarte.
- San Román Erretiratuen Elkarte.
- Ezkabarteko Abesbatza.
- C.D. Avance-Ezkabarte.
- Arreko Crossa.
- Atarrabiako Kirol Patronatua; patronatu honek eskaintzen dituen kirol-diziplinetan parte hartzen duten Ezkabarteko kirolariei eskainia.

Gainera, aipatu beharra dago Udalak bere gain hartzen dituela Arreko eta Makirriaingo **Olentzeroen** ospakizunak, **Errege**

► ► **Magoen bi kabalkadak** eta **Euskeraren Eguna** (Mintzakide Elkarteari emandako diru-laguntzetan sartzen da). Horrez gain, Haraneko herrietako Festa Patronaletan ere aurrekontu osoaren ehuneko handi bat jartzen du Udalak.

Udal honek ordaintzen du Irache Kontsumitzaileen Elkartearen bidez Haraneko

errolatuentzat dohainik eskaintzen den arreta eta aholkularitza zerbitzua.

Askotan galdetzen diogu gure buruari zertan gastatzen duen dirua Udalak. Adibide moduan, honako hau diru-kutxa publikoetatik ateratzen diren gastuen zati bat besterik ez da. Gastuak beti egiten baitira gure herrien eta herritarren mesederako. ■

## **NAFARROAKO GOBERNUAK EZKABARTERI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK**

Nafarroako Gobernuak 2016ko abenduan argitaratu zuen 18/2016 Foru Legea, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.

Honako aktuzio hauek daude Toki Inbertsioen Planaren barne: aipatutako epean azpiegiturak eta hornidurak sortzea, hobetzea eta berritzea. Hiru ataletan daude berezita:

**1) Inbertsio-programak:** Atal honi dagozkion diru-funtsak neurri handiko lanei dagozkie. Esaterako, ur-hornikuntzarako inbertsioak, hiri-hondakinak tratatzeko inbertsio-programak, aurretik garatutako programei buruzko ikerketak eta proiektuak eta azken generazioko banda zabalera sarrera ahalbidetzen duten sareak hedatzeko azpiegitura pasiboak. Inbertsio-programen barne sartzen da, esaterako, Eusa-Oibar herrietako ur-hornikuntza bermatzen duen obra.

**2) Tokiko Programazioa:** Atal honetan, hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako tokiko sareetan inbertitu dezakete Toki-entitateek. Horrez gain, honako hauek sartzen dira atal honetan: zoladurak (sareekin eta sarerik gabe), kaleko argiak, udal ekipamenduak eraikuntzako arau teknikorako egokitzea, bizitoki iraunkorretara doazen bideak, lurzatiez urbanizatzea, etab.

Ezkabarteko Udalak, kontzejuei galdetu ostean, Haranean zenbait obra egiteko di-

ru-laguntzak eskatu zituen Tokiko Programazioaren bidez. Nafarroako Gobernuak honako proiektu hauek bota ditu atzera: Orrioko San Juan kalearen zati baten zoladura, Eusako bide bat konpontzea, eta Azoz/Azotz eta Ezkaba lotzen dituen bidea konpontzea. Ordea, Zildotzeko kaleen eta Soraureneko Icircota eta Puente Viejo kaleen zoladura itxaron-zerrendan geratu dira, Nafarroako Gobernuak horiek aurrera eramateko diru-laguntzak emanen dituen jakin arte. Alabaina, honako beste proiektu hauek onartu ditu: Udaletxearen eraikina zaharberritzea (igogailu bat jarriko da, beste zenbait gauzen artean, oztopo arkitektonikoak sahiesteko), Iru-neko errepidetik Orikainera igotzen den bidearen zoladura (Ostatu zaharraren ondoan) eta Arreko kale hauen konponketa eta zoladura: Hiedras, Igueldea eta Travesía del Puente kaleak.

**3) Libreki erabaki beharrekoak:** Herritar kopuruaren arabaera, Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak ematen dizkie Kontzeju eta Toki-entitate txikiei, haiei egokiak iruditzen zaizkien inbertsio eta azpiegituretan erabil ditzaten. Horiek jasotzeko baldintzetako bat da obrak adierazitako epeen barruan egin behar direla beti; kasu honetan, 2018. urtea amaitu baino lehen. Soraureni diru-laguntza hori eman zitzaion 2017an eta herriko plazan, pilotalekuaren parean, aterpe bat egiteko baliatu zuten.



## *Horrelakoa da udaleko langileen lan-politika*

***Behin baino gehiagotan adierazi izan da Udal Buletin honen bidez zein de Udalaren kontratazio-sistema. Jakina den arren, berriz ere errepikatu nahiko genuke. Alkate batek ezin du bere nahiaren arabera kontrataziorik egin eta, beraz, ezin ditu berak nahi dituen langileak kontratatu. Hori dela eta, Udal honetan egin diren eta egiten diren kontratazio guztiek indarrean dagoen legedia betetzen dute.***

Azken kontratazioei dagokionez (legealdi honetan hogeita hamar bat daramatzagu), Alkatezaren intenzioa Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eskaintzen dituen diru-laguntzak probestea baino ez da izan, gure Haraneko pertsonak kontratatzeke erraztasunak jartzen baitituzte. Hortaz, gure inguruko gazteei bultzadatxo bat eman nahi izan zaie, haien lehen lanpostua eta lan-munduko lehen esperientzia izan dezaten. Horrek, gainera, familia askoren egoera ekonomikoa hobetzen laguntzen du, baita gizarteko talderik baztertuenen egoera aldatzen ere: emakumeena, esaterako. Kontratu horien baldintzak hobetzeko asmoz, Ezkabarteko Udalak otsailaren 1eko osoko bilkuran erabaki zuen Nafarroako Gobernuo programen diru-laguntzen bidez kontratatutako langileei E Mailari dagokion soldata ematea. Hau da, lan berberaren-

gatik soldata berbera ematea. Orokorrean, mota horretako kontratazioekin esperientzia positiboa izan dugu. Izan ere, Alkatezaren ustez, garrantzitsuena pertsonen erakusten duten interesa eta lan egiteko gogoia dira.

Kontratazio-prozedurari dagokionez, lehenbizi Nafarroako Enplegu Zerbitzuari lanpostu zehatz baterako eskaintza bat eskatzen zaio. Horrez gain, zerrenda bat ere eskatzen zaie, argitaratutako diru-laguntzaren bidez kontratatu ahal izateko baldintzak betetzen dituzten Ezkabarteko langabetuen datuekin. Zerrenda eskura daukagunean, mezu bat bidaltzen diegu izangai guztiei, interesaturik egonez gero haien curriculuma Udal bulegoetan aurkez dezaten. Izangai guztien artean, eta lehen-tasun gisa hartuta babesgabatasun handien duten kolektiboetako pertsonak eta curriculum onena dutenak, Alkateak aukeratzeko du nor kontratatuko den. Izan ere, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, Tokiko Erregimenaren Oinarrien Erregulazioarekin buruzkoa, Alkateari dagokio zeregin hori. Alkateak positiboki balioesten ditu udalbatzako zinegotzi guztien proposamenak, ekimenak eta iradokizunak, baina ez dago behartua Alkatezari dagozkion esku-menak besteen esku uztera. Hau ez da garrantzitsuen kontrako jarrera bat, baizik eta Legea behar bezala betetzeko nahia. ■

## ● **Materia organikoaren birziklatzea indartzeko kanpaina**

**Iruñerriko Mankomunitateak urte asko daramatza birziklatzearen gaia lantzen, horri buruzko proiektuak garatzen eta informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak egiten. Azken aldian, euren esku dauden baliabide guztiak jarri dituzte Materia Organikoaren birziklatzea lantzeko, betiere Tokiko Entitateekin elkarlanean.**

SM (Sistemas Medioambientales) da Mankomunitatearekin lan egiten duen enpresa eta aurkezten dituzten kanpaina guztiak koordinatzen dituena. Urte amaieran txosten bat aurkeztu zioten gure Udalari, landa eremuan zein eremu urbano eta periurbanoan eginen zuten kanpainaren berri emateko. Herrietan kartelak jarri ziren informatzeko, eta "atez ateko" bisitak egin ziren etxeetara, herritar guztiak birziklatzearen garrantziaz kontzientziazteko.



Konpost-ontzia.



Jasotako emaitzak nahiko positiboak dira. Ezkabarten izena eman duten etxeen kopurua % 64,6 da, eta Iruñerrian % 46,2. Gure eremuan egindako berrindartze-ekintzei esker, izena eman duten etxebizitzaren kopurua % 16,1 igo da, baina oraindik badago zer hobetua. Hori dela eta, Mankomunitateak elkarlanean aritzeko eskaria egin digute: alde batetik, testu hau medio, **Ezkabarteko auzokide guztiei eskertu nahi diete** kanpainak izan duen onarpena, harrera eta partehartzea. Beste alde batetik, kanpaina honekin bat egitera gonbidatu nahi dituzte oraindik izena eman ez duten pertsonak, inoiz ez baita berandu.

Materia organikoaren biziklatzean, **birziklatzen den materia** hondakin naturaletatik dator; hau da, jaki, hosto, izaki bizidun edo gorotzetatik. Hondakin horiek deskonposaketa-prozesu naturala dute eta, beraz, azkar desagertzen dira bizitzaren zikloan beste fase bat hasteko. **BIRZIKLATU, EMAIOZU BIZIA.**

## **Eman ezazu buelta bat eta ezagutu Ezkabarte**

**Ezkabarteko bideak seinalatzatu dira dagoeneko, gure Haranean barna oinez edo bizikletan paseatzen goza dezazun. Ezagutu itzazu gure txokoak, paisaiak eta ingurumen-baliabideak.**

Ibilbide hauei eta ibaiaren parkeari esker, Haraneko herri guztiak konektaturik geratu dira, errepidean ibili edo hura zeharkatu gabe. Aurreko urtean zenbait hobekuntza egin ziren landa- eta baso-lursailetatik pasatzen diren Ezkabarteko ibilbideetan. Balizkatzeaz eta margoen bidez seinalatzeaz gain, 4 mugarri jarri ziren honako ibilbide hauetan:

- Zildotz-Anoz-Nagiz bidea
- Soraureneko Gudua bidea
- Arreko Dorrearen bidea
- Garrueseko urmaelaren bidea

Urtarrila amaieran, eta proiektuan aurreikusitakoarekin bat, ibilbideetan informazio-etaulak jarri dira ibilbideen kartografia, perfila eta deskribapen labor batekin.

Udalak aipatutako ibilbideei eta ruta posiblei buruzko azalpen labor bat jasotzen duten eskuorriak ditu herritarren eskura.

**Eman ezazu buelta bat, ezagutu gure ingurua eta disfruta ezazu.**

**Ezagutu eta gozatu Ezkabarte!**



## UR-BILTEGIA INAUGURATU DA ARREN



lazko azaroan, ur-biltegi berria inauguratu zen Arren. Printzipioz, biltegi honetako ura Ezkabartera eta Atarrabiara bide-ratuko da. Inaugurazio ekitaldian honako hauek egon ziren: Xabi Lasa, Toki Administrazioiko Zuzendari Nagusia, Aritz Ayesa, Iruñerriko Mankomunitateko Lehendakaria, eta Pedro Lezaun, Ezkabartereko Alkatea.

Biltegi berriak 10.000 m<sup>3</sup>-ko edukiera du, eta biltegi zaharra ordezkaturiko du, egituran zuen akats bat dela eta jausi egin baitzen. Obrascon Huarte Lain S.A. enpresak egin ditu eraikitze-lanak, 2.765.409 €-ko aurrekontuarekin. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamenduaren Tokiko Inbertsio Planaren parte dira lan horiek, eta hori dela eta organo honek 1.212.926 €-ko diru-laguntza eman du.

Aurreikusten da etorkizunean, eraikuntza-lan gehiago egiten direnean, azpiegitura berri hau eskualdeko egitura nagusia izanen dela, Ezkabartereko ia herri guztiei eta Olaibarreko zenbaiti emanen baitie estaldura.

Biltegi berriko ura, aurrekoaren antzera, Eugiko urtegitik dator, eta Urtasunen egiten diote depurazioa, ura edangarri egiteko tratamendu-estazioan. ■

## LABURRAK

### Ezkabartereko polikiroldegia, zer nolako gozada!!

2017/18 denboraldia oso arrakastatsua izaten ari da Ezkabartereko kirol-instalazioetan. Haren jarduna hasi zenetik, Ezkabartereko Udal Polikiroldegiak ez ditu sekula hainbeste erabiltzaile izan. **Hilabete honetan 300 kide zenbatu dira.**

Bai Udala, bai jarduerak antolatzen dituen Urdi enpresa oso pozik eta gustora daude emaitza hauekin eta kiroldegiari ematen ari zaion bultzadarekin. Izan ere, egunero nabari da mugimendu handia bertan. Polikiroldegi honen aldeko apostua egiten dute egunero kirola egitera datozen pertsonak, eta horren zergatia ongi egindako lanean oinarrituta da: betiere gure mugak kontuan hartuta, azpimarratu beharra dago instalazioen garbiketarako, erabiltzaileekiko arretarako, SNEren diru-laguntzei esker kontratatutako bi langileen lan duinak eta begiraleen profesionaltasunak giro ederra sortzen dutela gure polikiroldegian.

**Gure hurrengo erronka, hobetzen jarraitzea!!!**



### POLIKIROLDEGIKO LURSAILEN DESJABETZEA

Udal honek gardentasuna izan du beti aldarri eta, hortaz, badakizue, hitzarmen bat dela medio, Udal Polikiroldegia lursail pribatueta eraiki zela. Beti jakin izan dugu lehenago edo beranduago zerbait ordaindu beharko zela lursail horientatik. Hori dela eta, Alkatezarako dirua aurrezteko lehentasun gisa izan zuen lehenengo egunetik, horretarako ordua heltzean ordainketak ustekabeaz ez harrapatzeko. Prezioari dagokionez, ez gara inoiz ados jarri lursailen jabearekin. Izan ere, hasieran ia millioi bat euro eskatzen zituen. Ez zenez adostasunik lortu, gaia epaitegietara eramanean zen, eta 6 urtez iraun du horrela. Udalak **150.624,81 €** eskaini eta **ordaindu ditu dagoeneko**. Oraingoan, Desjabetzeko Epaimahaiak **306.037,68 €-an baloratu ditu** lursailak eta atzerapenaren interesak. Jabeak ados agertu dira balio justu horrekin eta, beraz, hasieran eskatu zutena baino 600.000 euro gutxiago jasotzea onartu dute. Baina Udalean ez gaude ados Epaimahaiak egindako balorazioarekin eta, ondorioz, errekurtsioa jarri dugu. Hala ere, azpimarratu nahi dugu gaur egun **Udalak diru nahikoa duela lursail horien balio justua ordaintzeko**. Diru hori azken urte hauetan garatutako austeritate-politiken ondorio da, horiei esker udaleko diru-kutxak zorrik gabe eduki baititzakegu.



# PREMIER CAR

Su taller de confianza!!

Nos avalan más de 20 años de experiencia

Si necesita desplazamiento al dejar su vehículo en el taller, nosotros le llevamos a su casa

PONGA A PUNTO SU VEHÍCULO



DESCUENTOS EN:



cambio de neumáticos & frenos



distribuciones & amortiguadores



revisiones & pre-ITV

Pol. Ind. Ezcabarte, calle K, 11  
31194 ARRE • Ezcabarte (Navarra)

948 361 808

## AMAIA ROMERO FENOMENO SOZIALA ETA SORAURENEKIN DAUKAN LOTURA



***Ezkabarteko Udaletik keinu txiki bat egin nahi genion Amaia Romerori. Lerro hauetan gure zorionik zintzoena eskaini nahi diogu Soraureneko aldizkako auzokide honi.***

Ez gara okertuko esanez gero gutxi direla Amaia oraindik ezagutzen ez dutenak. Izar handi honek telebistako Operación Triunfo programa irabazi zuen, eta bere lagun Alfredekin batera, Portugalen ospatuko den Eurovisión lehiaketan parte hartuko du maiatzaren 12an. Amaia berezia da, bere dohaiek, goxotasunak, musikalitateak, karismak eta instrumentuak jotzeko duen maisutasunak ongi erakutsi dutenez. Amaiaren familiak etxe bat dauka Soraurenen eta bertan bildu ohi da familia osoa, bereziki udan eta data garrantzitsuetan. Berak argi utzi du sarri nongoa den eta non pasa dituen txikitako momenturik ederrenak. Bere jolasak, barreak, sekretuak eta txoko gogokoenak Soraurenen daude. Agian, egunen batean, Ultzama ertzean bere kontzertu batez gozatuko dugu, horrenbeste disfrutatu duen herriaren Ostatu alboan, Soraurenen.

### Jaiotzak

Beti izaten da poz ikaragarria umetxo bat jaiotzea; horregatik, hartu gure Zorionak eta ongietorria:

Paula Gomez Diaz De Cerio (Arre)

Paula Telleria Cifuentes (Arre)

Alaine Castillo Leranoz (Arre)

Oier Churruza Arriazu (Azoz/Azotz)

Erik Garcia Alzueta (Azoz/Azotz)

Marcos Navarraz Segura (Arre)

### Heriotzak

Gure oroimenean daude:

Ernesto Molins Fajarnes (Arre)

M<sup>a</sup> Fe Irigoyen Cabodevilla (Arre)

Manuel Echarte Mugueta (Arre)

Jose Gonzalez Carbajo (Orrio)

Jesús M<sup>a</sup> Erdozain Echeverria (Arre)

Carlos Sanchez Cans (Arre)

Julián Ardanaz Aragón (Orikain)

Argazkiak: **Eva Lara**. Lehen horrikoa argazki: Miguel Angel Sesma

### TELEFONO INTERESGARRIAK:

Ezkabarteko Udala (Orikain)	<b>948 330 341</b>	Bidez Osasun Etxeak (Arre)	<b>948 332 335</b>
Kexak eta iradokizunak	<b>012</b>	Ezkabarte kiroldegia (Azotz)	<b>948 330 758</b>
Genero indarkeriaren aurka	<b>016</b>	Publizitatea Aldizkarian	<b>948 248 324</b>